

Euskararen erabilera Ipar Euskal Herrian baldintzatzen duten faktoreak

Factors Influencing the Use of the Basque Language in the Northern Basque Country

EGUZKI URTEAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
eguzki.urteaga@ehu.eus

Recepción: marzo de 2024. Aceptación: abril de 2024.

Laburpena: Artikulu honek, Ipar Euskal Herria osatzen duten Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa herrialdeetan euskararen erabilera baldintzatzen duten hiru faktore aztertzen ditu, gure ustez nagusiak direnak: hizkuntza gaitasuna (zehazkiago, euskararen jakite maila); norbere lehen hizkuntza edo hizkuntzak, zeinek eragin zuzena daukaten ezagutza mailan eta erabilera ohituratan; eta norbere hizkuntza motibazioa, bereziki euskararekiko eta euskararen sustapenarekiko, jarrera eta iritzietan ikusten den bezala. Horri guztiari, pertsona bakoitzaren harreman sarearen baitan dagoen euskal hiztunen dentsitatea gehitu behar zaio, euskara baliatzeko aukerak baldintzatzen baititu. Faktore horiek elkar elikatzen dute, fenomeno metagarri bat eraginez.

Gako hitzak: faktore baldintzatzaileak – erabilera – euskara – Ipar Euskal Herria.

Abstract: This article analyses the factors determining the use of the Basque language in the French territories of Labourd, Basse-Navarre and Soule. We defend the hypothesis that the use of the Etxepare language is determined by three key factors: linguistic competence and, more precisely, the level of knowledge of the Basque language; the individual's first language or languages, which have an impact on the level of knowledge and frequency of use; and, the individual's linguistic motivation, which is particularly perceptible in attitudes and opinions towards Basque and its promotion. To this should be added the density of Basque speakers in the speaker's social network, enabling him to speak Basque. These factors feed into each other, creating a cumulative phenomenon.

Key words: determining factors - practice - Basque language - Northern Basque Country.

I.- SARRERA

Artikulu honek, Ipar Euskal Herria osatzen duten Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa herrialdeetan euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak aztertzen ditu, gaur egun Euskal Hirigune Elkargoaren baitan kokatzen direla jakinik (Urteaga, 2017).

MAPA: IPAR EUSKAL HERRIKO PROBINTZIAK



Gure hipotesiaren arabera, hiru dira Etxepareren hizkuntzaren erabilera baldintzatzen duten faktoreak: hizkuntza gaitasuna¹ eta, zehatzago izanda, euskararen jakite maila; norbanakoaren lehen hizkuntza edo hizkuntzak, jakinda eragin zuzena daukatela ezagutza mailan eta erabilera ohituretan, izan eremu formal ala informaletan; eta, gizabanakoaren hizkuntza motibazioa, batik bat euskararekiko eta euskararen sustapenarekiko, jarrera eta iritzietan ikusi daiteken gisara. Guztiari, pertsona bakoitzaren harreman sarearen baitan dagoen euskal hiztunen dentsitatea gehitzen zaio, euskara baliatzeko aukerak baldintzatzen baititu. Aldagai horiek elkar elikatzen dute, metaketa fenomeno bat sortuz.

II.- EUSKARAREN ERABILERA

Ipar Euskal Herrian euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak jorratu aurretik, ezinbestekoa da Etxepareren hizkuntzaren erabilerrari loturiko datu nagusiak gogoratzea.

2021eko inkesta soziolinguistikokoaren arabera, Iparraldeko euskal hiztunak, alegia, euskara frantsesa bezainbat edo gehiago baliatzen dutenak, 18.200 dira, hau da, 2016an baino 2.000 gutxiago, orduan 20.200 baitziren. Proporzionalki,

¹ Euskal hiztunen artean, bi multzo bereizten dira beren hizkuntza mailaren arabera: euskaldun aktiboak, alegia, euskara ondo ulertzen eta hitz egiten dutenak, eta euskaldun hartzaileak, hots, Etxepareren hizkuntza behar bezala ulertu baina pixkat hitz egiten dutenak.

2021ean bertako biztanleen % 7,1ek euskararen erabilpen intentsiboa egiten dute, hots, 2016an baino puntu 1 gutxiago, eta % 11k frantsesa baino gutxiago erabiltzen dute euskara, alegia, 5 urte lehenago baino puntu 1 gehiago. Emaitza horiek koherenteak dira Soziolinguistika Klusterrak 2021ean egindako euskararen erabileraren kale neurketarekin (Soziolinguistika Klusterra 2022a eta 2022b).

Horrez gain, 2021ean, soilik euskal hiztunen % 1,1 mintzo da gehiago euskaraz frantsesez baino, % 6k maila berean baliatzen dituzte bi hizkuntzak, % 11k frantsesa euskara baino sarriago enplegatzen dute, eta % 3,4k noizbehinka erabiltzen dute Etxepareren hizkuntza. Azpimarragarria da euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen duten euskal hiztunen portzentajea zerbait gutxitu bada, % 11,7tik % 11ra igaroz, hau da 0,7 puntuko beherakada, euskara frantsesa bezainbat edo gehiago erabiltzen duten hiztunena nabarmen jaitsi dela, % 10etik % 7,1era, alegia, 2,9 puntuko beherakada (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa² 2023b: 16).

1. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA IPAR EUSKAL HERRIAN 2021EAN EHUNEKOTAN ETA ZENBAKI ABSOLUTUETAN.

Euskararen erabilera	Euskaraz frantsesez baino gehiago	Euskaraz frantsesez bezainbeste	Euskaraz frantsesez baino gutxiago	Oso gutxi euskaraz	Beti frantsesez
Ehunekotan	1,1	6	11	3,4	78,5
Balio absolutuetan	2.900	15.400	28.100	8.700	200.800

Aitzitik, euskararen erabilera oso aldakorra da gune soziolinguistikoan arabera, txit urria baita Baiona-Angelu-Miarritze eskualdean (aurrerantzean, BAM), txikia Lapurdi barnealdean, eta oraindik esanguratsua Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

² Aurrerantzean, EJ-NG-EEP

2. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA IPAR EUSKAL HERRIKO GUNE SOZIO-
LINGUISTIKOEN ARABERA 2021EAN EHUNEKOTAN.

Euskararen erabilera/Gune soziolinguistikoa	Euskaraz frantsesez baino gehiago	Euskaraz frantsesez bezainbeste	Euskaraz frantsesez baino gutxiago	Oso gutxi euskaraz	Beti frantsesez
BAM	0,3	1,6	5,1	2,6	90,4
Lapuri barnealde	0,6	6,8	12,9	3,4	76,4
Nafarroa Beherea eta Zuberoa	5,8	17,4	22,7	6,1	47,9

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, ageri da erregulariki behera egiten duela 65 urtetik gorakoan artean, % 9,4k euskara frantsesa bezainbat edo gehiago baliatzen dutelako eta % 11,7k Molièren hizkuntza baino gutxiago. 35-49 adin-taldean, % 4,8k euskara frantsesa bezainbat edo gehiago erabiltzen dute eta % 11,4k frantsesa baino gutxiago. Aldiz, kontrako joera ikusten da gazteagoen artean, bai 25-34 urte artekoen kasuan (% 5,8 eta % 10,6), bai 16-24 urte artekoen kasuan (% 5,7 eta % 12,4) (EJ-NG-EEP 2023b: 19).

Euskararen erabilera harreman sarean arabera jorratuz gero ikusten denez, «testuinguru informal batean (etxean), euskararen erabilera gutitzen ari da azken inkestarekin alderatuta, solaskide mota guzietan» (EJ-NG-EEP 2023a: 17). Orokorki, bi hamarkadatan, familia barruan egiten den euskararen erabilpen intentsiboak 5 puntu egin du behera, eta soilik haurrekiko solasetan egin du zerbait gora. Datu hauek bat egiten dute azken kale neurketak eskainitako emaitzekin. Izan ere, «indarrean dago haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau soziala» (Soziolinguistika Klusterra, 2022a: 40).

Komunikazio gune formalei dagokionez, honako datuok ematen dizkigu Inkesta Soziolinguistikoak:

Euskararen erabilera gutitu da elkarrizketa testuinguru guzietan. Euskararen erabilera handiena da lagunartean (% 12,1), ondotik lankideen testuingurua dator (% 7,9, 2,4 puntuko jaitsiera 2016ko inkestarekin alderatuta). Alderantziz, bankuak euskara guttienik erabiltzen diren lekuak dira (% 2,4). Osasun zerbitzuak dira euskararen erabilerearen emendatze bat ageri den toki bakarra eta joera hori azken hiru inkestetan baieztatzen dela dirudi (+1,4 puntu 2011tik). Saltokien kasuan, erabilera-maila egonkortzen da 2016ko inkestarekin konparatuta. (EJ-NG-EEP 2023a: 18).

Baina, zein dira euskararen erabilera baldintzatzen duen faktoreak? Horien artean, euskararen ezagutza maila kokatzen da, guztia baldintzatzen baitu.

III.- HIZKUNTZA GAITASUNAREN FAKTOREA

Hain zuzen ere, euskararen erabilpena Etxepareren hizkuntzaren ezagutza mailari estuki lotua dago, jakinik euskara menperatzen duten hiztunen portzentajeak behera egin duela azken hiru hamarkadetan. Izan ere, euskaldun aktiboak % 24,7tik % 20,1era igaro dira 1991 eta 2021 bitartean, hots, 4,6 puntuko beherakada. Halaber, euskaldun hartzaileak % 11,9tik % 9,4ra pasa dira hogeita hamar urtean, hau da, 2,5 puntuko jaitsiera.

Aitzitik, beherakada hori ez da hain nabarmena izan azken bost urteetan, % 0,4koa baita, % 0,9koa zelarik 2011 eta 2016 bitartean eta % 3,3koa 2001 eta 2011 bitartean. Horrez gain, balio absolutuetan, euskaldun aktibo eta hartzaileen kopuruak gora egin du 2011z geroztik. Hain justu, lehenek zerbait gora egin dute azken hamarkadan, 51.100etik 51.500era igaroz (+400), eta bigarrenek nabarmen egin dute gora, 21.700etik 24.000ra pasaz (+2.300) (EJ-NG-EEP 2023b: 4). Biak gehituz gero, ikusten da nola bi talde horiek Ipar Euskal Herriko biztanleriaren % 29,5a osatzen duten (...), hau da, 75.500 hiztun. Horrek esan nahi du 1.500 euskaldun aktibo eta hartzaile irabazi direla bost urtean eta 2.700 hamar urtean (EJ-NG-EEP 2023a: 7).

3. TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZAREN BILAKAERA IPAR EUSKAL HERRIAN 1991 ETA 2021 BITARTEAN.

Urtea	2001	2011	2016	2021
Euskaldun aktiboak	% 24,7 55.000	% 21,4 51.100	% 20,5 51.200	% 20,1 51.500
Euskaldun hartzaileak	% 11,9 26.000	% 9,1 21.700	% 9,3 23.300	% 9,4 24.000
Erdaldunak	% 63,4 141.000	% 69,4 165.500	% 70,1 175.000	% 70,5 180.500

Euskal eledunen bilakaera adinaren arabera aztertzen bada, ageri da nola euskararen berreskurapen prozesu bat ikusten den denbora aurrera joan ahala, zeren euskararen jakiteak gora egiten du modu iraunkorren 16-35 urte bitartekoen artean. Zehazkiago esanda, 16-24 adin-taldean, euskararen ezagutza % 12,2tik % 21,5era igaro da 2001 eta 2021 bitartean. Era berean, neurri apalagoan bada ere, epe berean, euskal hiztunen portzentajea % 21,1etik % 17,2ra igaro da. Alderantziz, euskara menperatzen duten hiztunen portzentajeak behera egin du nabarmen 50-64 urtekoen artean (% 29,8tik % 19,3ra) eta 65tetik gorakoen artean (% 35,5etik % 25,7ra). 35-49 urtekoak erdibidean aurkitzen dira, zeren eta, beherakada etengabea ezagutu ostean 2001 eta 2016 bitartean (% 23tik % 14,6ra), euskal hiztunen portzentajeak zerbait gora egin du ondoren % 15,1era arte (EJ-NG-EEP 2023b: 6).

Hor ere, hizkuntza gaitasuna oso aldakorra da gune soziolinguistikoen arabera, zeren eta, euskaldun aktibo zein hartzaileak % 8,4 eta % 6,2 baitira

BAMen, % 22,9 eta % 11 Lapurdi barnealdean, eta % 47,5 eta % 13,8 Nafarroa Behereaz eta Zuberoaz osaturiko barnealdean (EJ-NG-EEP 2023b: 7). Hala ere, denbora joan ahala, bilakaerak oso ezberdinak dira guneen arabera. Izan ere, 2001 eta 2021 bitartean, euskaldun aktiboen portzentajea ia lehengoan dago Baionako hirigunean (% 8,3tik % 8,4ra pasaz, hots, 0,1 puntuko gorakada), nabarmen behera egin duelarik Lapurdi barnealdean (% 28,5etik % 22,9ra pasaz, hau da, 5,6 puntuko jaitsiera), eta, zer esanik ez, kostaldean (% 60,9tik % 47,5era pasaz, alegia, 13,4 puntuko gainbehera) (EJ-NG-EEP 2023b: 8).

Halaber, euskaraz frantsesez bezain eroso edo erosoago sentitzen diren euskal hiztunen portzentajeak behera egiten jarraitzen du, % 21,6tik % 20,5era igaro baita 2001 eta 2021 bitartean, hau da, 1,1 puntuko beherakada. Era berean, elebidun orekatuena, alegia, euskaraz frantsesez bezain eroso moldatzen direnena, 4,2 puntu jaitsi da, % 37,5etik % 33,3ra pasaz bolada berean. Aldiz, frantsesez euskaraz baino erosoago sentitzen direnen portzentajeak gora egin du, % 40,9tik % 46,2ra pasaz bi hamarkada horietan, hots, 5,3 puntuko gorakada (EJ- NG-EEP 2023b: 9).

Datu horiek lotura zuzena dute euskal hiztunen lehen hizkuntzarekin, zeren eta, euskara eta frantsesa beren gurasoengandik jaso dutenen portzentajea ia aldatu ez bada ere 2001 eta 2021 bitartean (% 6,1etik % 6ra igaroz, hau da, 0,1 puntuko jaitsiera), euskara beren gurasoengandik jaso ez duten euskal hiztunena erdira gibelatu baita aldi berean (% 25etik % 13ra pasaz, alegia, 12 puntuko gainbehera) (EJ-NG-EEP 2023b: 10). Horrez gain, euskara etxean jaso ez duten euskal hiztunen portzentajeak behera egin du adin-talde guztietan, maila apalenera iritsiz gazteen artean, zeren soilik 25-34 urte artekoen % 5,1 eta 16-24 urte artekoen % 3,7 aurkitzen dira egoera horretan. Aldiz, beren familian euskara eta frantsesa jaso dituztenenak gora egin du adin-talde horietan, zeren % 9,4koa eta % 11,1ekoa da gaur egun (EJ-NG-EEP 2023b: 11).

Joera horren arrazoi nagusia euskaldun zaharren portzentajearen beherakada mailakatuan bilatu behar da (Urteaga 2022), % 60,4 baitira gaur egun eta % 82 baitziren duela bi hamarkada. Aldiz, jatorrizko elebidunena bikoiztu egin da aldi horretan, % 11tik % 22,2ra igaroz, eta euskaldun berriena % 7tik % 17,4ra pasa da, hau da, 10,4 puntuko gorakada (EJ- NG-EEP 2023b: 12).

Orokorki, euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazioa nabaria da azken hamarkadan egindako inkestek baieztatzen dutenez.

4. TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA IPAR EUSKAL HERRIAN 2011 ETA 2021 BITARTEAN EHUNEKOTAN.

Urtea	2011	2016	2021
Gaitasuna	21,4	20,5	20,1
Erabilera	9,6	8,1	7,1

IV.- LEHEN HIZKUNTZAREN ERAGINA

Era berean, euskararen erabilera hurrek hiru urte izan arte familia ingurumenean jasotako lehen hizkuntzari estuki lotua dago, zeren eragin zuzena dauka euskara erabiltzeko erraztasunean eta maiztasunean.

Izan ere, 2021ean, euskara bakarrik biztanleriaren % 13aren lehen hizkuntza da, eta euskara frantsesari lotua populazioaren % 6arena. Guztira, ia bost hiztunetatik batek (% 19k) jaso du euskara familian. Azken bi hamarkadetan euskarak izan duen bilakaerak agerian uzten du euskara soilik jaso duen biztanleriaren zatia geroz eta txikiagoa dela denbora joan ahala. Hain zuzen, zati hori % 25ekoa zen 2001ean, % 21,6koa 2006an, % 19,5ekoa 2011n, % 15,9koa 2016an, eta % 13koa 2021ean, hau da, 8,6 puntuko gainbehera hogei urtean. Euskara eta frantsesa lehen hizkuntza gisa dituen biztanleriaren ibilbidea zerbait ezberdina da, aldaketa handirik ezagutu gabe, zeren ehuneko hori jaisten da 2001 eta 2011 bitartean, % 6,1etik % 5,4ra pasaz (-0,7 puntu), berriz ere hazi aurretik, % 5,4tik % 6ra igoz (+0,6 puntu) (EJ-NG- EEP 2023b: 10).

5. TAULA: LEHEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA IPAR EUSKAL HERRIAN 2001 ETA 2021 BITARTEAN EHUNEKOTAN.

Urtea/Lehen hizkuntza(k)	2001	2006	2011	2016	2021
Euskara	25	21,6	19,5	15,9	13
Euskara eta frantsesa	6,1	6,1	5,4	5,8	6
Guztira	31,1	27,7	24,9	21,7	19

6. TAULA: LEHEN HIZKUNTZA GUNE SOZIOINGUISTIKOAREN ARABERA IPAR EUSKAL HERRIAN 2021EAN EHUNEKOTAN

Gune soziolinguistikoa/ Lehen hizkuntza(k)	BAM	Lapuri barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa	Ipar Euskal Herria
Euskara	5,1	13,6	38,3	13,3
Euskara eta frantsesa	3,3	7,1	10,7	6,0
Frantsesa	91,7	79,3	51,0	80,7

Aitzitik, lurraldeen artean alde handiak daude jasotako lehen hizkuntzari dagokionez. Barnealdean, alegia, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, biztanlearen

ia erdiak (% 49) euskara du lehen hizkuntza gisa eta % 10,7k euskara frantsesarekin batera. Joerari erreparatuz gero, euskara lehen hizkuntza duten hiztunen kopuruak nabarmen egin du behera azken bost urteetan, 8,5 puntu jaitsi baita 2016 eta 2021 bitartean. Lapurdi barnealdean, biztanleriaren 5etik 1ek (% 20) euskara du lehen hizkuntza bezala, hau da, % 13,6k euskara du soilik (2,3 puntuko beherakada bost urtean) eta % 7,1ek euskara erdararekin batera. BAMEk dauka euskara lehen hizkuntza duten pertsonen proportziorik apalena, % 5,1ek euskara bakarrik baitu (-1 puntu 2016 urtearekin alderatuta) eta % 3,3k euskara eta frantsesa duelako (EJ-NG-EEP 2023a: 11).

Euskara lehen hizkuntza bakarra dutenen proportziorik handiena 65 urte edo gehiagokoen adin-tartean aurkitzen da. Hiztunak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta joera hau apaltzen da. 16-24 urtekoen adin-tartean, lehen hizkuntza euskara soilik duten pertsonen proportzioa % 3,7koa da, 20 urte lehenago % 14,3koa zelarik.

Aldiz, bi hizkuntza jabetze-eskemak kontuan hartzen direnean (euskara soilik lehen hizkuntza eta euskara eta erdara elkarrekin), euskara lehen hizkuntza gisa handitu egiten da bi adin-tarte gazteenetan, aitzineko inkestarekin alderatuta: 25-34 urtekoen % 14,5 (2016an, % 13,6koa zelarik) eta 16-24 urtekoen % 14,8 (2016an, % 10,9koa zelarik).

Lehen aldiz, euskara lehen hizkuntza (euskara bakarrik edo erdararekin) duten pertsonen proportziorik tipiena ez da kategoria gazteenetan baizik eta 35-49 urte bitartekoetan (EJ-NG-EEP 2023a: 12).

Horrez gain, duela bi hamarkada, euskaldun zaharrek euskaldun guzien % 82a osatzen bazuten, gaur egun, berriz, % 60,4a osatzen dute. Era berean, jatorrizko elebidunen proportzioa % 11koa baten, gaur-gaurkoz, % 22,2koa da. Azkenik, euskaldun berriak % 7 baziren 2001ean, % 17,4 dira 2021ean (EJ-NG-EEP 2023a: 13).

7. TAULA: JATORRIZKO LEHEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA IPAR EUSKAL HERRIAN 2001 ETA 2021 BITARTEAN EHUNEKOTAN.

Lehen hizkuntza/ Urtea	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak
2001	82	11	7
2021	60,4	22,2	17,4
Tartea	-21,6	+11,2	+10,4

Era berean, lurraldeen arteko desberdintasunak nabarmenak dira. Hain zuzen ere, BAMEko biztanleen erdiak baino zerbait gutxiago dira euskaldun zaharrak, laurden bat jatorrizko elebidunak eta bostetik bat (% 20,8) euskaldun berriak. Lapurdi barnealdean, banaketa berdintsua da eta euskaldun zaharren,

jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien proportzioak, hurrenez hurren, % 54, % 24,6 eta % 21,4 dira. Eta, barnealdean, hots Nafarroa Beherean eta Zuberoan, euskaldunen % 75,1 euskaldun zaharrak dira oraindik, jatorrizko elebidunak % 16,5 eta euskaldun berriak % 8,5 direlarik (EJ-NG-EEP 2023a: 13). Lehen hizkuntza adinaren arabera aztertzen bada, nabarmena da euskal hiztunen tipologia asko aldatu dela. Izan ere, 50 urte baino gehiagokoan artean, euskaldunak nagusi dira, bereziki 65 urte eta gehiagokoetan (% 80,3). Alabaina, euskaldunak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta txikiagoa da euskaldun zaharren proportzioa, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien mesedetan (EJ-NG-EEP 2023a: 13).

Azkenik, euskararen transmisioa aldakorra da gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera.

Bi gurasoak euskaldunak direlarik, hizkuntza transmisioaren progresioa nabarmena da 2016ko inkestarekin alderatuta; izan ere, gurasoen % 79k euskara transmititu diote seme-alabei (erdarekin edo euskara soilik), 3,6 puntuko emendatzea beraz 2016 urtearekin konparatuz eta euskararen transmisioa hizkuntza bakar gisa 2,1 puntuz emendatzen da 2016 urtearekin alderatuta. (EJ-NG-EEP 2023a: 14).

Hala ere, euskararen transmisioa, bakarrik edo frantsesarekin batera, gorabeheratsua da adinaren arabera. Orokorki, transmisio horrek behera egiten du adina jaisten den mailan, zeren euskara soilaren transmisioa % 66,6koa da 50 urtetik gorakoan artean, baina % 48,8koa da 16-34 urtekoan artean, hots, 17,8 puntu gutxiago. Aldiz, euskararen eta Molièrren hizkuntzaren transmisioak kontrako ibilbidea jarraitzen du, zeren % 13,8koa da adinekoen artean, baina % 27,3koa da gazteenen baitan, hau da, 13,5 puntu gehiago. Horrek esan nahi du, une berean, frantsesa bakarrik transmititzen dutenen zatia handitzen doala adina gutxitzen den heinean, % 19,6tik 50 urtetik gorakoan artean % 24ra 16-34 urtekoan artean. (EJ-NG-EEP 2023a: 14).

8. TAULA: TRANSMITITUTAKO HIZKUNTZA(K) BI GURASOAK EUSKALDUNAK DIRELARIK IPAR EUSKAL HERRIAN 2021EAN.

Transmititutako hizkuntza(k)/ Adin-taldea	Euskara	Euskara eta frantsesa	Frantsesa
16-34 urte	48,8	27,3	24,0
35-49 urte	55,9	19,9	24,2
50 urtetik gora	66,6	13,8	19,6
Guztira	63,1	16,1	20,8

Alabaina, hizkuntza transmisio horrek nabarmen egiten du behera bakarrik bi gurasoetatik bat euskal eleduna denean. Izan ere, euskara frantsesarekin batera

bakarrik transmititua da kasuen % 26an. Azpimarragarria da «euskaldunak gero eta gazteagoak izan, orduan eta transmisioa gorago dela» (EJ-NG-EEP 2023a: 15).

V.- HIZKUNTZA MOTIBAZIOAREN GARRANTZIA

Azkenik, euskararen erabilera hizkuntza motibazioari zeharo lotua dago, jakinik, alor horretan, euskararekiko eta bere sustapenarekiko iritziak zein jarrerak paper garrantzitsu bat jokutzen dutela.

Orokorki, 16 urtetik gorako biztanleria geroz eta aldekoagoa da euskararen sustapenari dagokionez, bereziki azken bost urteotan. Hain justu, 2016 eta 2021 bitartean, euskararen mesedetan neurriak hartzearen aldekoa den biztanleriaren portzentajea % 35,3tik % 36,3ra igaro da, hots, puntu leko hazkundea. Horrekin batera, ez alde ez aurka daudenena etengabe hazi da azken hamarkadan, % 40,2tik % 49,2ra igaroz 2011 eta 2021 bitartean, alegia, 9 puntuko hazkundea. Halaber, bolada horretan, aurka dauden iritziak nabarmen egin du behera, % 21,3 baitziren 2011n eta bakarrik % 14,1 direlako hamarkada bat beranduago (EJ- NG-EEP 2023b: 20). Beraz, euskara sustatzeko politikak aktiboki babesten dituzten herritarren portzentajea zerbait igo da, ez alde ez aurka daudenena nabarmen hazi da, eta aurkakoena beherantz doa. Horrek agerian uzten du euskarak eta bere sustapenak geroz eta onarpen sozial handiagoa dutela Ipar Euskal Herrian (Urteaga, 2019: 160-161).

Horrek lotura zuzena dauka euskarak lurralde horretako herritarren baitan pizten duen interesarekin. Izan ere, galdezkatutako pertsonen % 29,6k diote interes handia daukatela, % 30,9k interes nahiko handia, eta % 21,4k interes ertaina, hau da, 10 pertsonatik 8k (% 81,9), jakinda interes hori begi-bistakoa dela gune guztietan. Alderantziz, soilik galdezkatutako % 10k diote interes txikia daukatela eta % 7k oso interes apala dutela euskararekiko (EJ-NG- EEP 2023b: 21).

9. TAULA: EUSKARAREKIKO INTERESA IPAR EUSKAL HERRIAN 2021EAN
EHUNEKOTAN.

Interesa/ Urtea	Oso handia	Nahiko handia	Ertaina	Nahiko ahula	Oso ahula	Ez du erantzuten
2021	29,6	30,9	21,4	10	7	1

Azpimarragarria da, hamarkada batean, euskararekiko interes handia erakusten dutenen kopurua 4,6 puntu hazi dela, % 25etik % 29,6ra igaroz (EJ-NG-EEP 2023a: 20). Euskararekiko jarrerak lotura zuzena du hizkuntza-gaitasunarekin. Hain justu, euskaldunen % 70 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, euskaldun hartzaileen % 48,4 eta erdaldunen % 25.

Era berean, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da Nafarroa Beherean eta Zuberoan (% 48,7), Lapurdin (% 39,2) eta BAMen baino (% 29,2). Azken inkestarekin alderatuta, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera dutenen proportzioa handitu da azken bi lurralde horietan (hurrenez hurren, +1,6 puntu eta +2,8 puntu) eta jautsi da Nafarroa Beherean eta Zuberoan (-6,3 puntu). (EJ-NG-EEP 2023a: 19).

Horrez gain, lehen aldiz 1991z geroztik bost urtero egiten diren inkesta soziolinguistikoetan, euskararen sustapenaren aldeko ekimenen ezagutzari buruz galdekatuak izan dira pertsonak. Erdiek diote gutxienez euskararen aldeko ekimen bat ezagutzen dutela. Ezagutza hori hizkuntza-gaitasunarekin zuzenki lotua da. Izan ere, euskaldunen % 70ek euskararen sustapenaren aldeko gertakari bat ezagutzen dute eta erdaldunen % 41ek (EJ-NG-EEP 2023a: 20).

Azkenik, beren haurren irakaskuntza hizkuntzari dagokionez, «irakaskuntzari begira, % 54k irakaskuntza elebidun bat nahiko luke haurrentzat (euskaraz, frantsesa ikasgai edo euskaraz eta frantsesez). Guttiago dira soilik frantsesezko irakaskuntza eredu bat nahiko luketenak, % 40,4» (EJ-NG-EEP 2023a: 20). Zehazkiago, galdezkatutako pertsonen % 16,5ek diote nahiko luketela beren haurrek euskarazko murgiltze erudian ikas dezaten frantsesa irakasgaia gisa proposatua delarik, % 37,5ek ordu parekotasuna gauzatzen duen euskara-frantsesa irakaskuntza elebiduna aukeratuko lukete eta % 25,4ek nahiago lukete beren haurrek frantsesez ikas dezaten, beti ere euskara irakasgai bezala proposatzen bada. Soilik % 15ek frantses hutseko murgiltze eredia aukeratuko lukete (EJ-NG-EEP 2023b: 22).

VI.- ONDORIOAK

Ipar Euskal Herria osatzen duten Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa herrialdeetan euskararen erabilera baldintzatzen duten eragileak aztertu dira artikulu honetan. Babestu den tesiaren arabera, Etxepareren hizkuntzaren praktika hiru funtsezko faktorek erabakitzen dute: hizkuntza gaitasunak eta, zehazkiago, euskararen menperakuntza mailak, bai ahoz eta bai idatziz; hiztunen lehen hizkuntzak edo hizkuntzek, zeintzuek eragin zuzena daukaten ezagutza mailan eta erabilera usadioetan; eta, azkenik, hizkuntza motibazioek, zeinak bereziki euskararekiko eta euskararen sustapenarekiko jarrera eta iritzietan ikus baitaitezke.

Laugarren faktore bat gehitzea komeni da, alegia, pertsonaren harreman sarean euskara baliatzeko aukera eskaintzen duen euskal hiztunen dentsitatea. Izan ere, euskararen erabilera oso ezberdina da guneen arabera, oso txikia izanik BAMen, urria Lapurdi barnealdean, eta esanguratsua barnealdean. Horrek esan nahi du pertsona batek, zenbat eta euskaldun gehiago izan bere harreman sarean (bereziki Etxepareren hizkuntza ondo menperatzen badute), orduan eta aukera gehiago izango dituela euskara baliatzeko, eta alderantziz.

IO. TAULA: GAITASUNA, LEHEN HIZKUNTZA, EUSKARAREN ERABILERA ETA EUSKAREKIKO JARRERA ETA IRITZI BAIKORRAK, GUNE SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA IPAR EUSKAL HERRIAN 2021EAN EHUNEKOTAN.

Gune soziolinguistikoak/ Aldagaiak	BAM	Lapuri barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa	Ipar Euskal Herria
Gaitasuna (euskaldun aktiboa eta hartzailea)	14,6	33,9	52,5	21,5
Lehen hizkuntza (euskara bakarrik edo frantsesarekin batera)	8,4	20,7	49	19,3
Erabilera (intentsitate ezber- dinak)	9,6	23,6	52,1	21,5
Euskararekiko jarrera eta iritzi baikorrak	29,2	39,2	48,7	36,3

Izan ere, erabilera oso lotua dago ezagutzarekin, lehen hizkuntzarekin eta euskararekiko eta bere sustapenarekiko jarrera zein iritziekin. Horrek agerian uzten du faktore horiek elkar elikatzen dutela fenomeno metagarri batean.

VII.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa (2023a) 7. inkesta soziolinguistikoa. Ipar Euskal Herriko emaitzak. [https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Prentsaurrekoak/2023/2023_03_30/Emaitzen_laburpena-eus.pdf]
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa (2023b) VII. Inkesta Soziolinguistikoa. Iparraldeko emaitzen aurkezpena. [https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Prentsaurrekoak/2023/2023_03_30/Aurkezpena.pdf]
- Soziolinguistika Klusterra (2022a) Hizkuntzen erabileraren kale neurketa 2021. Emaitzen laburpena. [https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/05/hekn21_emaitzen_laburpen_txostena.pdf]
- Soziolinguistika Klusterra (2022b) Hizkuntzen erabileraren kale neurketa 2021. Txosten teknikoa. [https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/05/HEKN2021_Txosten-teknikoa_20220525.pdf]
- Urteaga, E. (2019) La nouvelle politique linguistique au Pays Basque, Paris, L'Harmattan.
- Urteaga, E. (2022) «Bascophones d'origine et nouveaux bascophones», Revue d'Études d'Oc, 175, 9-28.